

## PRENTSAKO OHARRA

**ARTE URBANOA “BILBO ZAHARRA KULTURARAKO ZUBIA” PROGRAMAKO PROTAGONISTA INGURUKO ERAKUSKETA ARETOETARA BISITA GIDATUEKIN, MUSIKAREKIN, TATUAIAKO TEKNIKEKIN ETA DOKUMENTALEKIN, BESTEAK BESTE**

*Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak eta Bilbo Zaharra auzoko hainbat galeria eta adierazpen artistikoen sormenerako espazioekin batera antolatutako programak, BIHAR OSTEGUNA URRIAREN 8tik aurrera eta HILAREN 17 ZAPATURARTE “Bilbo Zaharra Kulturarako Zubia” egitaraua garatuko du. Aurten, joera gazteenei zuzenduta dago eta hortik datorkio BLV-ART izena*

*Remed, Fefe Talavera, Axel Void eta Laguna GRAFFITIGILEEK euren lanaren zuzeneko erakustaldia egingo dute eta Extralargo kolektiboko partaidea den Eva Mena izango da 12 urtetik gorakoentzako tailerra emango duena. SKATEBOARDING ikastaroak emango dituzte begirale adituek jarriko den ‘Skate park’ batean*

*Martzana Kaian eta Cortes Kalen artean dauden arte galerietan erakusketak jarriko dira eta BISITA GIDATUAK antolatuko dituzte euskaraz eta gaztelaniaz eta hauetariko erakusketa areto batzuetan, lau DOKUMENTAL pasatuko dira, non Estatu Batuak eta Japonia bezalako urruneko lurraldeetako arte urbanoaren azkenengo joerak erakutsiko diren.*

*Hidrogenesse, Elbis Rever (El Bancón de la Lolan hilaren 8an) eta Mendetz (Bilborock aretoan hilaren 10ean) taldeek emango duten BI KONTZERTUAK izango dira musika nota jarriko dutenak*

*Luzinterruptus eta lehengo SpY graffitigileek bi ESKU-HARTZE URBANO egingo dituzte, hausnarketarako gonbitea luzatuz hara eta hona dabilen oinezkoari kalean eskura duten gaiekin.*

*Javier Abarca Complutenseko irakasleak bi HITZALDI eskainiko ditu eta arte urbanoarengana hurbilduko gaituen TAILER praktiko bat emango du non partehartzaile bakoitzak bere proiektu propioa garatuko duen*

*Tatuaia talde batek genero honen TEKNIKA erakustaldia egingo du zuzenean eta performers talde batek ‘BODY SUSPENSION’ erakustaldia egingo du (arnesetatik ziztanzilikatzeko euren gorputzeko piercingak erabiliko dituzte)*

*“Bilbo Zaharra Kulturarako Zubia” Kultura eta Hezkuntza Sailaren ekimenez jaioa da auzo honetako erakargarritasuna eta komunikazioa Uriko gainontzeko bazterrekin lotzeko hellburuarekin. Honela, inguru honetako kolektibo kultural ezberdinak ere parte hartzen dute antolatu diren ekimenetan, diseinuan zein egitaraua burutzeko orduan*

**INFORMAZIO GUZTIA:**

L&V Comunicación (Itziar Villamandos)

944 16 08 00 / 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com

**Bilbo, 2009ko urriaren 7a.** Abangardiako arteak gure hiriko kaleak hartuko ditu **“Bilbo Zaharra Kulturarako Zubia” programaren hirugarren edizioari esker.** Aurtan sortzaile gazteen lanak ezagutaraztea du helburu egitarau berritzaile batekin. Honetarako izen esanguratsua jarri zaio edizio berri honi: **BLV-ART.** San rantzisko eta Bilbo Zaharreko eskaintza kulturala suspertzeko eta zabaltzeko Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak martxan jarritako ekimen hau, BIHAR ISTEKUNA HILAK 8an hasiko da eta ZAPATUA 17rarte iraungo du. Bertan, ekimen ezberdinekin gozatzeko aukera eskainiko da, hala nola, graffiti eta skate tailerrak, bisita gidatuak arte galerietatik zehar, kale-instazioak, tatuai tekniken erakustaldiak zein dokumentalen proiektioak izango dira beste batzuen artean.

**ARTE ZIRKUITOA. Bisita gidatuak eta erakusketak.**

“Bilbo Zaharra Kulturarako Zubia” edizio berri honetan arte urbanoari eta bere adierazpen berritzaileei begirada berezi bat egin nahi dio, **Martzanako kaia eta Cortes kaleen artean dauden arte galerietarako doako bisita gidatuak antolatu izanaren arrazoia.** Arte modernotik zehar egingo diren “ibilalditxo” hauek, **Arte Zirkuitoa** lelopean antolatu dira eta honekin, formato ezberdinetan egindako lanak ikusteko aukera ematen da, ilustrazioetaik hasi eta argazki edo bideoetaraino. Modu honetan, parte hartzaileak auzoa ematen ari den aldaketaren testigu izango da, aldaketa honetan komunitate artistikoak duen eragina erakutsiz.

Arte Zirkuitoan parte hartuko duen galeria eta esparru kulturalak, **ANTI-Liburudenda, Apetit Gallery, D-Spacio, Espacio Abisal, Espacio Marzana, Galería Garabat, Hegoak, Bilboko Berregiene Museoa, SC Gallery eta Tattoo Adict dira.** Egun hauetarako guztiak antolatuko dute erakusketak eta ikusleagoak doainik izango dira. Erakusgarri jarriko diren bilduma ezberdinen artean, ikusleagoak artista espainiarren eta japoniarren lanetan aurkitu daitezkeen loturak ikus ditzake, edo eta graffitigile prestigiotsuenen lanen atzera begirada bat; Remed frantsesarena eta Fefe talavera brasildarrarena kasu.

-**ANTI-Liburudenda.** ‘Mi padre quiere a mi madre’, Elena Aitzkoarena

-**Apetit Gallery.** ‘Welcome to the Mena’s Castle’, Norberto Menarena

-**D-Spacio.** ‘Don’t flipatzen’, d Seba Domatorena

- **Abisal Espazioa.** ‘Y Dios creó la política’, Daniel Silvo eta Nicolás Laízena

- **Martzana Espazioa.** ‘Autopoloe’, Fermín Morenarena

-**Galería Garabat.** ‘Ojo x ojo y diente x diente’, malomuymaloren

-**Hegoak.** ‘Recuerdos’, Mar Pajarónena

-**Berreginen Museoa.** ‘PUNI-PUNI. Miradas cruzadas sobre la creación gráfica entre artistas japonesas y españolas’, Teresa Pérez Contreras, Terelo komisariatutako erakusketak kolektiboa

-**SC Gallery.** Fefe Talavera eta Remed

-**Tattoo Adict.** ‘Bilbao Tattoo Ink Fusion’

Lau aukera izango du bisita hauetan parte hartu nahi duenak, bi ordutako iraupena izango dutelarik gutxi gora-behera: **ostirala 9, 18:00etatik aurrera; zapatua 10ean 10etatik 12:00etara; ostirala 16an 18.00eta eta zapatuan 17an 12:00etan.** Euskaraz nahiz gaztelaniaz izena emateko, [artezirkuitoa@blv-art.com](mailto:artezirkuitoa@blv-art.com). Helbidera email bat bidali beharko da. Bisita bakoitzaren ondoren, iritziak `blog`batera irauliko dira hiritarren partehartzeko zabalduz.

## **GRAFFITI ETA SKATE ERAKUSTALDIA**

Artea ez dago galeari arteetan bakarrik. Bilbo Zaharreko eta San Frantzisko kaleetatik paseotxo bat emanez, ikusleagoak adierazpen artistiko urbanoarengana gerturatzeko aukera izango du : graffitiak. Remed, Fefe Talavera, Axel Void eta Laguna graffitigile errekonozituek, jendeaurreko **bi erakustaldi** egingo dituzte, bertaratzen denak euren lanaren prozesua minutuoro ikusteko aukera izango duelarik.

Lehenengo erakustaldia ostirala hilaren 9an egun osoan zehar egingo da Cortes Kalean. 19:00etan ikusiko da kale honetako 17 eta 19 zenbakien artean egingo den graffiti murala , momentu horretatik aurrera arte urbanoaren zirkuituko parte izatera pasatuko delarik. Zapatuan, Mariaren Bihotza Plaza izango da erakustaldiko esparrua 11:00etatik 20:00ak bitartean, honetan DN taularen gainean egingo delarik murala.

Zapatuan ere, Eva Mena Extralargos kolektiboko kideak, **graffiti tailer bat** eskainiko du 12 urtetik gorakoentzat. Partehartzaileek, guztien artean zer margoztu erabakiko dute eta adierazpen artistiko honen historiari eta garapenari buruzko hitzalditxo bat jaso ondoren, lan egingo dutenaren inguruko zirriborroa egingo dute. Ekimen hau doakoa da eta [graffiti@blv-art.com](mailto:graffiti@blv-art.com) helbidean eman beharko du izena interesatuek dagoenak.

Hip-hop estilo garbian, graffitigile profesionalen lana zein tailerra, **DJ batekin animatuko dira eta gainera ‘skate park’ bat jarriko da, monitoreen begiradapean eta aholkuekin lagunduta**, skateboarding praktika zabalduko delarik lehenengo aldiz monopatinarekin ausartzen denarentzat.

## **KONTZERTUAK**

Aurreko urteetan bezala, BLV-ART programazioan bere lekua izango du musika abanguardista eta alternatiboak. Hilaren 8an, **Hidrogenesse eta Elbis Rever** izango dira *El Balcón de la Lolan*, dantzalekuetako pista guztiak betetzea lortzen duten Eres PC/Eres Mac’ edo ‘Gimnástica pasiva’ doinuak interpretatuko dituzte, musika elektronikoa egiten duten Carlos Ballesteros eta Genís Segarra bikoteak.

Hauekin batera arituko da baita ere Elbis Rever, freskotasunez eta dadaismoz betez eszenatokia. Natalia Vegas, Alba Burgos, Faezeh Araee, Janina eta Alexandra McCormack dira Bilbon jaiotako talde honetako kideak eta gero Varsovia eta Nw Yorken garatutakoa. Festival Sin Códigos – euren lana interneten xehetzen duten artistei zuzendutako-jaialdiaren lehenengo edizioko irabazlea izan da talde hau. Sarreraren salneurria 5 eurotan jarriko da salgai eta erreserbak [reservas@unodos.org](mailto:reservas@unodos.org) helbidean egin beharko dira. Txarteldegian ere gun berean salgai egongo dira.

## **ESKU-HARTZE URBANOAK**

Programako oinarrizko gakoa artea gure kaleetako eguneroko bizitzako elementua dela demostratzea da, modu iragankorrean edo denboraldi baterako. Horiek dira hain zuzen esku-hartze urbanoak, adierazpen artistiko iragankorrek denboraldi labur batean hiritarrak hausnarketara gonbidatzen dituztenak.

Honela SpY izkutuko goitizena erabiltzen duen artista madrildarrak, erreperitorio zabalago bat erabiltzen du hausnarketa honetarako gonbitean. Afitxa erraldoiak, trukaturako argitalpenak, seinale eraldatuak,... aspaldiko graffitero honen kalkeko edozein elementu erabiltzen baitu urbanitak euren i”nertzia automatatik” esnatzeko saiakeran. Okasio honetan “Parking” erabiliko du hausnarketa gonbiterako, zeinetan autoek gure inguruko espazioa okupatzen duten lekuaz aritzen ena; hiri handi batean autoa aparkatzeko arazoak eragiten duen esklabutzaren inguruan eta autoekiko hain menpe egongo ez baiginan aparkaleku libreek emango liguketen erabilera desberdinen inguruko hausnarketa bat da. Horretarako, **urriaren 10 eta 13 artean kale batean aparkatuta dagoen auto bat erabiliko du**, baina kasuan, San Frantzisko Kaleko 21. zenbakian aparkatuko den autoa modu ez-ohiko batean izango dela. **Hilaren 10ean 13:00etan izango da inaugurazioa.**

## **ZINE DOKIMENTALA**

BLV-ART programak arte urbanoaren ibilbideari eta etorkizunari buruzko erreflexio akademikorako lekua ere izango du. Hilaren 9an , ostirala, **Javier Abarca Madrilgo**

**Unibertsitate Complutenseko Arte Ederretako irakasleak**, San Frantziskoko udaltegian 19:00etan eta doako sarrerarekin, 'Arte autónomo en la calle' izenburuarekin panoramika bat eskainiko digu.

Baita, **'Diálogo con Bilbao' arte urbano tailerra** eskainiko du Abarcak. Hasiera ekitaldiko hitzaldia hilaren 10ean San Frantzisko udaltegian emango du 12:00etan eta beronen praktika astean zehar izango da 16.00etatik 20:00ak bitartean. Partehartzaile bakoitzak bere proiektu artistikoa garatu beharko du (kalean izan nahiz udaltegian bertan izan) eta prozesu osoa argazkilarie talde baten jarraituko du, gero hauek programaren amaieran erakusjketak batean ziztuzilatuko direlarik.

Hemen izena emateko [taller@bly-art.com](mailto:taller@bly-art.com) helbidean izango da, doakoa da eta interesaturik dagoenak bere curriculum txiki bat aurkeztu beharko du. Curriculumetatik, abiatuz tailerrean parte hartu ahal izango dutenak sasilkatuko dira.

### **GORPUTZ ARTEA**

Ostirala 16 eta zapatuan 17an, Berreginen Museoa Tattoo Ink Fusion Bilboko tatuatzaileek euren lanaren zuzeneko erakustaldia egingo dute publikoaren nahiei erantzunez. Larruazalaren ordez papera erabiliko dute eta tatuaiaren teknika eta estilo ezberdinak erakutsiko dute.egun osoan zehar izango da hau Museoko ordutegiaren arabera ( 10:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara).

Itxierako eguna berriro Berreginen Museoa, performers talde batek *body suspensión* erakustaldi bat eskainiko du, non artistek euren gorputzeko piercingnak erabiliko dituzten soka batzuetatik ziztuzilatatzeko. Fakirren ondorengotzat jotzen diren hauek, minaren mugari deasioa egingo diote, urdail gogorrenentzat bakarrik zuzendutako ikuskizuna bihurtuz.

### **HASIERA EKITALDIA BIHAR OSTEGUNA 8**

BLV- ART programa BIHAR OSTEGUNA 8 hasiko da 19:30etan Berreginen Museoa izango den 'Puni-Puni. Miradas cruzadas sobre la creación gráfica entre artistas japonesas y españolas' erakusketaren inaugurazioarekin. Castellón, Málaga, Zaragoza eta Valencia bezalako hirietatik zehar ibili den erakusketa honetan, hain ezberdinak diren kulturen arteko loturak ikusi ahal izango dira. Teresa Pérez Contrerasen komisiaturik dago erakusketa, Terelo bezala ezaguna, bere obra batzuk ere ikusgai izango direlarik. Takashi Murakami – duela gutxi Guggenheim museoa bisitatutakoa- artista pop japoniarraren eragin garbia du erakusketa honek eta ezagun bihurtzen dira publikoaren artean, Custo Barcelonako eta EP3ko, El Paíseko gehiegariaren diseinuetan granadar artista honek egin dituen kolaborazioengatik.

Geroago, 21:30etan Hidrogenesse eta Elbis Rever arituko dira *El balcón de la Lolan*. Eta eguna Luzinterruptus eta SPYren iesku-hartze urbanoen naugurazio ekitaldiekin amaituko da.

"Bilbo Zaharra Kulturarako Zubia" programarekin, Kultura eta Hezkuntza Sailak auzo honi balioa erantsi eta bere erakargarritasuna eta komunikazioa Uriko gainontzeko bazterrekin lotzeko hellburua du. Honela, inguru honetako kolektibo kultural ezberdinak ere parte hartzen dute antolatutako ekimenetan, diseinuan zein egitaraua burutzeko orduan eta datozen edizioteko helburu izaten jarraituko du honek. Gainera, Bilbo Zaharreko, San Frantsisko eta Zabalako 2005-2009 Plan Berezian sartuta dago, eraldatzen ari den auzoaren garapenean kulturaren apostua egiten delarik trakzio elementu gisa.

UDALA · AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea – Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48001 Bilbao

Tfn: 94 420 52 15 / 94 420 59 92 Faxe: 94 420 52 16 H. elek: [prensa@alcaldia.bilbao.net](mailto:prensa@alcaldia.bilbao.net)

[www.bilbao.net](http://www.bilbao.net)